



305/2017, de 8 de noviembre

## FORU AGUINDU

Euskera, Kultura eta Kirol Saila  
Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua  
Esp. Zk.: 17-IT 12-1

### Informazio publikoaren eskuratzeko partzialerako eskubidea onartzea

2017ko urriaren 10eko idazki baten bidez [REDACTED] baimena eskatu zuen Frankoren diktadurak jazarritakoen omenezko monolitoan agertzen diren pertsonen izenen zerrenda eskuratzeko.

Zerrenda horretan frankismoak jazarritako (hil, atxilotu...) pertsona batzuen izen-abizenak agertzen dira, beste datu batzuen artean. Zerrenda Arabako Foru Aldundiak 2009an kontratu bidez "Valentín de Foronda" Gizarte Historiaren Institutuari agindutako ikerketa lan baten emaitza izan da; lan hori egiteko espediente administratiboetan, judizialean eta beste mota batzuetakoan bildutako dokumentuak erabili dira.

Lan horretan, kasu gutxitan zehaztu ahal izan da zerrendako pertsona dagoeneko hilda dagoenez, eta hildakoen kasuan gauza bera gertatu da heriotza egunarekin.

Arlo honetako oinarritzko legea abenduaren 9ko 19/2013 Legea da, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa (GIPEGOL). Lege horrek hauxe xedatzen du 13. artikuluan: "*Informazio publikotzat jotzen dira titulu honetako subjektuek beren eginkizunetan sortu edo jaso eta beren esku dituzten edukiak eta dokumentuak, formatua edo euskarria gorabehera.*"

## ORDEN FORAL

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte  
Servicio de Secretaria Técnica  
Nº Expte.: 17-ST 12-1

### Reconocimiento del derecho al acceso parcial a la información pública.

Mediante solicitud de fecha 10 de octubre de 2017, [REDACTED] solicita el acceso al listado de las personas que aparecen en el monolito "Homenaje a los represaliados de la dictadura franquista".

El listado solicitado recoge, entre otros datos, nombre y apellidos de personas represaliadas por el franquismo (asesinadas, encarceladas,...) y tiene su origen en un trabajo de investigación contratado por la Diputación Foral de Álava en el año 2009 al Instituto de Historia Social Valentín de Foronda, que se realizó en base a documentos obrantes en expedientes administrativos, judiciales o de otro tipo.

En dicho trabajo en muy pocos casos se recoge si las personas que aparecen en el listado han fallecido y la fecha cierta del fallecimiento.

La Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno (LTAIBG), como ley básica en la materia, en su artículo 13 dispone "*que se entienda por información pública los contenidos o documentos, cualquiera que sea su formato o soporte, que obren en poder de alguno de los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de este título y que hayan sido elaborados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones.*"



Nolanahi ere, GIPEGOLEk mugak ezartzen dizkio informazio publikoa eskuratzeko eskubideari. Muga horiek kontuan ditu otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, 31. artikuluan ezartzen baitu informazio publikoa eskuratzeko eskubidea mugatu edo ukatu egingo dela oinarritzko legerian ezartzen diren arrazoiengatik eta bertan adierazten den moduan.

Hizpide dugun eskaerari dagokionez, GIPEGOLEk 15. artikuluan ezartzen du kasu batzuetan datu pertsonalak babesteko sistemaren ondorioz mugak ezartzen zaizkiola informazio publikoa eskuratzeko eskubideari. Hori dela eta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak CN12-010 irizpenean adierazten du bizirik dauden pertsonen datu pertsonalak, agiritegi historikoetan daudenak zein bestelakoak, eta datuon tratamendua abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babesarenak (DBLO), ezartzen duenaren babespean daudela erabat.

Artikulu horren aplikazioaren inguruan nolako zalantzak sortu diren ikusirik, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak horretarako irizpideak edo urratsak finkatu dituzte 2015eko ekainaren 24ko 2/2015 Irizpidean. Irizpide hori erabiliko da eskaerari erantzuteko.

Lehenbizi, aztertu behar da eskatzen den informazioan ba ote dagoen datu pertsonalik, datu pertsonaltzat hartzen direla abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babesarenak (DBLO), 3. artikuluan finkatzen dituenak.

3.a) artikulua araberako datu pertsonala da *“persona fisiko identifikatu edo identifikagarriei buruzko edozein informazio”*.

Horregatik, eskatzen den informazioan datu pertsonalak daude, inolako ezbairik gabe: pertsonen izen-abizenak.

Ahora bien, la LTAIBG, establece también límites al derecho de acceso a la información pública. Límites a los que la propia Norma Foral 1/2017, de 8 febrero, de Transparencia, Participación Ciudadana y Buen Gobierno del Sector Público del Territorio Histórico de Álava se remite cuando dispone en su artículo 31 que el derecho de acceso a la información pública se limitará o denegará por las causas y en los términos previstos en la legislación básica.

En lo que aquí interesa, la LTAIBG en su artículo 15 establece los límites derivados del sistema de protección de los datos de carácter personal que hace ceder el derecho al acceso a la información pública. Al respecto, la Agencia Vasca de Protección de Datos en su Dictamen CN12-010 concluye que los datos personales de personas vivas, obren o no en archivos históricos y su tratamiento están plenamente protegidos por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. (LOPD).

Ante las dudas que plantea la aplicación de este artículo el Consejo de Transparencia y Buen Gobierno y la Agencia Española de Protección de Datos en su Criterio 2/2015, de 24 de junio de 2015, han fijado el criterio o pasos a seguir para su aplicación. Criterio que se va a utilizar para dar respuesta a la solicitud.

En primer lugar habría que valorar si la información solicitada contiene o no datos de carácter personal, entendiéndose por éstos los definidos en el artículo 3 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal (LOPD).

El artículo 3.a) define datos de carácter personal como *“cualquier información concerniente a personas físicas identificadas o identificables”*.

Por ello, sin lugar a dudas, se puede decir que la información solicitada contiene datos de carácter personal, como son los nombres y apellidos de personas.



Bigarrenik, argitu behar da datu horiek babes berezikoak direnez DBLOko 7. artikularen arabera: a) Ideologia, sindikatu afiliazioa, erlijioa edo sinesmenak agerian uzten dituzten datu pertsonalak; b) Arraza jatorriari, osasunari eta bizitza sexualari buruzko datu pertsonalak; c) Arau hauste administratibo zein penalen inguruko datu pertsonalak.

Hona egin litezkeen interpretazioetako bat: zerrenda nolakoa den kontuan edukita, nahiz eta bertan izen-abizenak baino ez egon, pentsa liteke pertsona bat zerrendan agertze hutsak haren ideologia adierazten duela nolabait.

Hala ere, interpretazio honek zalantzak sor ditzakeenez gero, interesdunarentzat onuragarriena den interpretazioa hartuko dugu aintzat, hau da, datu horiek ez direla babes berezikoak.

Hirugarrenik, informazioan dauden datu pertsonalak ez badira babes berezikoak, argitu beharko da identifikaziorako baino diren ala ez, dena delako organoaren edo erakundearen antolaketarekin, funtzionamenduarekin edo jarduera publikoarekin lotuak.

Ez dira halako datuak, eta ondorioz, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren ustez, informazioa eskuratzeko baimena eman edo ez erabakitzeko GIPEGOLEk 15. artikuluko 3. zenbakian ezartzen duen haztapena egin beharko da. Horrenbestez, eskaera jasotzen duen organoak informazioa eskuratzeko baimena emateko honako hauek haztatu behar ditu: batetik, informazioa zabaltzea interes publikokoa izatea; bestetik, eskatzen den informazioan aipatzen diren pertsonen eskubideak, batez ere datu pertsonalak babesteko eskubidea, oinarritzkoa dena.

Hona haztapenerako aplikatu beharreko irizpideak:

En segundo lugar, habría que valorar si los datos son o no datos especialmente protegidos en los términos del artículo 7 de la LOPD, esto es: a) Datos reveladores de la ideología, afiliación sindical, religión y creencias; b) Datos de carácter personal que hagan referencia al origen racial, a la salud y a la vida sexual; y c) Datos de carácter personal relativos a la comisión de infracciones penales o administrativas.

Una de las posibles interpretaciones es que, dado el carácter del listado, a pesar de que en si mismo no recoge más que nombres y apellidos, se podría llegar a interpretar que, por el sesgo de la propia lista, la mera inclusión en la misma puede considerarse intrínsecamente como manifestación de la ideología.

Sin embargo, ante las dudas que puede plantear esta interpretación, se va a seguir la más favorable para el interesado y entender que no se trata de datos especialmente protegidos.

En tercer lugar, si los datos de carácter personal contenidos en la información no fueran datos especialmente protegidos, habría que valorar si son o no exclusivamente datos meramente identificativos relacionados con la organización, el funcionamiento o la actividad pública del órgano o entidad correspondiente.

No se trata de este tipo de datos por lo que, según el Consejo de Transparencia y Buen Gobierno y la Agencia Española de Protección de Datos, para dar o no acceso a la información habría que efectuar la ponderación prevista en el artículo 15 número 3 de la LTAIBG. Es decir, el órgano al que se dirija la solicitud concederá o no el acceso previa ponderación suficientemente razonada del interés público en la divulgación de la información y los derechos de los afectados cuyos datos aparezcan en la información solicitada, en particular su derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal.

Los criterios para realizar dicha ponderación son:



a) Ukitutakoei ahalik kalterik txikiena egitea, ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, Espainiako ondare historikoarenak, 57. artikuluan ezartzen dituen epealdiak iragan direnez gero.

b) Eskatzaileak eskaera justifikatzeko adieraztea eskubide bat erabiltzen ari dela edo ikertzailea izatea eta informazioa xede historiko, zientifiko edo estatistikoetarako behar duela azaltzea.

c) Ukitutakoen eskubideei ahalik kalterik txikiena egitea, dokumentuetan agertzen diren datuak haiek identifikatzeko baino ez badira.

d) Ukitutakoen eskubideak ahalik gehien babestea, dokumentuetan bildutako datuek eragina eduki ahal badute haien intimitatean edo segurtasunean, edo haiek adingabeak badira.

Gogoan eduki behar da idazkian zerrendako pertsona guztien izen-abizenak eskatzen direla eta, beraz, ezinezkoa dela haztapenerako irizpideak pertsona bakoitzari banaka aplikatzea.

Haztapena egiterik ez dagoenez, ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, Espainiako ondare historikoarenak, 57. artikuluan ezartzen dituen irizpide tenporalak baliatu beharko dira eskaera ebazteko. Horien arabera, pertsona baten inguruko informazioa eskuratu ahal izateko ezinbestekoa da haren heriotzatik 25 urte igarota izatea edo, bizirik badago, 50 urte igarota izatea dokumentua egin zenetik. Gainera, kontuan eduki behar da eskatzaileak ez duela justifikatu eskaera esanez eskubide bat erabiltzen ari dela edo ikerlaria dela eta informazioa xede historiko, zientifiko edo estatistikoetarako behar duela.

Zerrendako pertsona gutxi agertzen dira zendu direla zehaztuta, eta hildakoetatik gutxi heriotza egun zehatza ezarrita; beraz, gehienei ezin zaie aplikatu aurrean aipatutako 25 urteko epealdia, bizirik ez daudela egiaztatuta edo noiz hil diren argitu ezean. Beste alde batetik, nahiz eta

a) El menor perjuicio a los afectados derivado del transcurso de los plazos establecidos en el artículo 57 de la Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español.

b) La justificación por los solicitantes de su petición en el ejercicio de un derecho o el hecho de que tengan la condición de investigadores y motiven el acceso en fines históricos, científicos o estadísticos.

c) El menor perjuicio de los derechos de los afectados en caso de que los documentos únicamente contuviesen datos de carácter meramente identificativo de aquéllos.

d) La mayor garantía de los derechos de los afectados en caso de que los datos contenidos en el documento puedan afectar a su intimidad o a su seguridad, o se refieran a menores de edad.

Ha de resaltarse que, atendiendo a la petición, dada la solicitud del listado completo de nombres y apellidos, se hace imposible la aplicación de estos criterios de ponderación de forma individualizada a cada uno de los afectados.

Ante la imposibilidad de aplicar la citada ponderación, para resolver hay que apelar a los criterios temporales recogidos en el artículo 57 de la Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español, que permite el acceso a la información en caso de que hubiesen transcurrido 25 años desde el fallecimiento de los afectados o 50 años desde la elaboración del documento en caso de que éstos estén vivos. Y se debe también tener en cuenta que el solicitante no ha justificado su petición en el ejercicio de un derecho o que tengan la condición de investigador y motivado el acceso en fines históricos, científicos o estadísticos.

En la información que se dispone en muy pocos casos consta si las personas que aparecen en la lista han fallecido y fecha cierta de dicho fallecimiento, por lo que en la mayoría de los casos no se puede aplicar el plazo de los 25 años citado a menos que se acredite que no están vivos



pertsona batzuk bizirik daudela pentsatu, erreferentziako agiria 2010. urtean egin zen; beraz, oraindik ez dira pasatu 50 urte.

Horregatik guztiagatik, zerrenda osoa eskatzen denez eta, beraz, aurrean azaldutako irizpideak haztatzerik ez dagoenez (pertsona gutxiri aplikatu ahal baitzaie informazioa nahi bezala eskuratzeko denboraren irizpidea), eskatzaileari duela 25 urte baino gehiago hil direla ziurtatu daitekeen pertsonen datuak (izen-abizenak) soilik eskuratzeko eskubidea onartu behar zaio eta ukatu egin behar zaio hori ziurtatzerik ez dagoen pertsonen datuak eskuratzeko baimena.

Informazioa paper formatuan emango da eskatzaileak ez duelako inolako helbide elektronikorik adierazi, eta prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita dago ematen den informazioa DIN A4 formatuko 20 orrialde baino gutxiago delako (Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2017 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, onartzen dituen informazio publikoa emateagatik ordaindu beharreko prezio publikoak, 4.2. artikulua).

Aginduzko txostenak ikusi dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### **XEDATZEN DUT**

Lehenengoa.- Baimena ematea Frankoren diktadurak jazarritakoen omenezko monolitoan agertzen diren pertsona batzuen datuak (izen-abizenak) eskuratzeko, duela 25 urte baino gehiago hil direla ziurtatu daitekeen pertsonenak, hain zuzen, eta ukatzea hori ziurtatzerik ez dagoen pertsonen datuak eskuratzeko baimena, ebazpeneko azalpen zatian aipatu diren arrazoiengatik.

y la fecha en que fallecieron. Por otro lado, aunque se considere que no han fallecido, dado que el documento de referencia fue elaborado en el año 2010 tampoco ha transcurrido el plazo de 50 años previsto.

En conclusión, dado que se solicita el listado completo y esto hace imposible la ponderación de criterios descrita más arriba, a la vista de que en muy pocos casos se pueden aplicar los plazos que permiten el acceso libre a la información, se debe dar al solicitante acceso exclusivamente a los datos (nombre y apellidos) de aquellas personas de las que se tiene certeza que han fallecido hace más de 25 años y denegar el acceso a la información solicitada en todos aquellos casos en que no existe esa certeza.

La información se facilitará en formato papel porque el solicitante no ha indicado ningún correo electrónico, y está exento del pago de precio público porque la entrega de la información es de menos de 20 páginas de formato DIN A4 (artículo 4.2 del Decreto Foral 40/2017, del Consejo de Gobierno Foral de 3 de agosto, que aprueba los precios públicos por suministro de información pública).

Vistos los informes preceptivos.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

#### **DISPONGO**

Primero.- Dar acceso a los datos (nombre y apellidos) de aquellas personas que aparecen en el monolito "Homenaje a los represaliados de la dictadura franquista" de las que se tiene certeza que han fallecido hace más de 25 años y denegar el acceso a la información solicitada en todos aquellos casos en que no existe esa certeza, por las razones expuestas en la parte expositiva de la presente resolución.



Bigarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da jakinarazten den egunaren biharamunetik bi hilabete pasatu baino lehen edo, bestela, errekurtsu horren aurretik, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da Gardentasunaren Foru Kontseiluaren aurrean aurreko egun beretik hilabete pasatu baino lehen

Vitoria-Gasteiz,

Segundo.- Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses o, previa y potestativamente, reclamación ante el Consejo Foral de Transparencia en el plazo de un mes; en ambos casos el plazo se contará desde el día siguiente al de la notificación de la presente resolución.

**Igone Martínez de Luna Unanue**

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua  
Diputada de Euskera, Cultura y Deporte

**Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbígano**

Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria  
Director de Euskera, Cultura y Deporte